



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

XI. legegintzaldia

Iruña, 2025eko maiatzaren 20a

66. ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru-lege proiektuak:

- 11-25/LEY-00002. Foru-lege proiektua, Taxiei buruzko uztailaren 6ko 9/2005 Foru Legea aldatzen duena. Aurkeztutako zuzenketak (3. or.).

E SAILA:

Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- 11-25/MOC-00074. Mozioa, zeinaren bidez Estatuko Gobernua premiatzen baita BBVak Banco Sabadelli egindako EEPa (erosteko eskaintza publikoa) gauzatzea eragotz dezan. Miguel Garrido Sola jaunak aurkeztu du (5. or.).
- 11-25/MOC-00075. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Nafarroan kirol-lanbidean hasteari eta jarduteari buruzko apirilaren 4ko 18/2019 Foru Legea alda dezan Kultura, Kirol eta Turismo Departamentuaren bidez. Ibai Crespo Luna jaunak aurkeztu du (7. or.).
- 11-25/MOC-00076. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Nafarroan errenta bermatua ikuskatzeko plan bat lehenbailehen onets eta aurkez dezan. Emilio Jiménez Román jaunak aurkeztu du (8. or.).
- 11-25/MOC-00057. Erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita azterlan integral bat egin dezan Nafarroako genero-indarkeria ekonomikoari buruz, izaera instituzionalekoa barne, eta horri aurre egiteko garatu litezkeen tresnei buruz. Lehendakaritza eta Berdintasun Batzordeak onetsi du (9. or.).
- 11-25/MOC-00060. Erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita adingabeen egoitza-harrerarako sistema indartzeko bide-orri bat zehaztu dezan 2025eko uztaila baino lehen, inplikaturik dauden eragile instituzionalen nahiz sistemako langileen kolektiboaren parte-hartzearekin. Eskubide Soziale-tako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko Batzordeak onetsi du (9. or.).
- 11-25/MOC-00063. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Nafarroako Unibertsitate Publikoko ikasketen prezioak doitu ditzan. Unibertsitate, Berrikuntza eta Eraldaketa Digitaleko Batzordeak ezetsi du (10. or.).

—11-25/MOC-00064. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuan erizain espezialisten plazak ezartzeko plan estrategiko bat taxutu dezan. Osasun Batzordeak ezetsi du (10. or.).

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

—11-23/ELC-00003. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Eskola Kontseilu edo Hezkuntzako Batzorde Nagusirako eta Tokiko Kontseiluetarako izendatu beharreko kidea hautatzea. Hautaigatzak aldarrikatzea (11. or.).

J SAILA:

Ponentziak:

—11-24/PON-00001. Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 26.2 artikuluan jasotzen den Jokabide-kodea aztertzeke eta onesteko ponentzia (12. or.).

A saila:
FORU-LEGE PROIEKTUAK

11-25/LEY-00002. Foru-lege proiektua, Taxiei buruzko uztailaren 6ko 9/2005 Foru Legea aldatzen duena

AURKEZTUTAKO ZUZENKETAK

Legebiltzarreko Erregelamenduko 149. artikulua ezarritakoa betez, agintzen da Taxiei buruzko uztailaren 6ko 9/2005 Foru Legea aldatzeko foru-lege proiektuari aurkezturiko zuzenketak Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu daitezzen. Foru-lege proiektua 2025eko apirilaren 8ko 45. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko maiatzaren 13an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

1. ZUZENKETA

EH BILDU NAFARROA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

Artikulu bakarrari apartatu berri bat gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

"Berria.- 12. artikulua 1. apartatua aldatzen da. Honako testu hau izanen du:

"1.- Taxi lizentziak eskualdatu ahal izateko, alde aurretik beharko da udalaren edo baterako zerbitzurako eremuko toki entitate eskudunaren baimena.

Zioak: Taxiei buruzko Foru Legean urriaren 18ko 21/2018 Foru Legeak egindako aldaketak besteak beste ekarri zuen taxi-lizentzien eskualdatzeari buruzko araubidearen aldaketa. Halatan, 12.1 artikulua aldatu zen, eta arau orokor gisa ezarri zen eskualdagarritasuna, salbu eta lizentziak nongoak izan eta Iruñerriko Baterako Zerbitzurako Eremuan hasieratik zeuden udalerrien ondoren sartu ziren udalerrietakoak zirenean (xedapen gehigarri bakoitzaren 1. apartatua).

Aldaketa horren bidez halaber bigarren paragrafo bat gehitu zitzaion xedapen gehigarri bakoitzaren 6. apartatuari, zeinean zehaztu baitzen ezen Iruñerriko Mankomunitatean sartzen diren udalerrietako lizentziak, taxi-zerbitzuaren ondo-

riotarako, "apartatu honetan xedatuari jarraikiz", ezin eskualdatuzkoak izanen direla. Lizentzia horiek berez iraungiko dira titularraren uko egite, erretiro edo heriotza kasuetan, bai eta taxi lanetan aritzeko ezintasun iraunkorreko deklarazioa egiten den kasuetan ere".

Taxi lizentziak eskualdatzeko posibilitateari dagokionez, lizentzia berrientzat bestelako araubide juridikoa ezarri zen; jaulkitzailea zein udalerritan, horren arabera tratua, eta, azken batean, horien onuradun diren taxistentzako.

Arartekoak Lurralde Kohesiorako Departamentuari gomendatu dio, aurkeztu zitzaizkion bi kexa zirela-eta (Q19/787 y Q23/873), Taxiei buruzko Foru Legearen aldaketa susta dezala, halako moldean non baliorik gabe utziko baita lizentzia-eskualdaezintasunaren gaur egungo erregela, zeina arau orokorren salbuespen gisa ezartzen baita Iruñerriko taxi-zerbitzuaren baterako zerbitzurako eremuan sartzen diren udalerriei dagokionez.

Lurralde Kohesiorako Departamentuak ez die jaramonik egin bi gomendio horiei, eta ez zuen halakorik jaso ez Taxiei buruzko foru Legearen aldaketarako aurretiazko kontsultan, ez aurreproiektuan ez eta foru-lege proiektuan ere.

Nafarroako Taxien Kontseiluaren bileran, toki-entitateek bertan duten ordezkariak hizpidera ekarri zuen taxi-lizentzia batzuen eskualdaezintasunaren gaia, eta Garraioen eta Mugikortasun Jasangarriaren zuzendari nagusiak adierazi zuen ezen, baterako zerbitzurako eremuan lizentzia-eskualdaketa hori Iruñerriko Mankomunitateari zegokionez gero, "komenigarria litzatekeela Iruñerriko Mankomunitateak aldeko irizpena ematea eta, kasua bazen, horri buruzko txosten juridiko bat eskatzea".

Iruñerriko Mankomunitatetik, horretarako irekitako partaidetzako prozesuan, bertako gobernu-

batzorde iraunkorrek propio harturiko erabaki baten ondoren Mankomunitateko lehendakariak jaulkitako 142/2024 Ebazpenaren bitartez, Departamentuari eskatu zitzaion Taxiei buruzko Foru Legea aldatzeko prozeduran "azter dadila Iruñerriko Mankomunitatearen eremuko taxi-lizentzia jakin batzuk eskualdatu ezinaren zilegitasuna, diskriminatzailea izan daitekeelakoan; eta, kasu bada, aldatua izan dadila aipatu xedapen gehigarria, Arartekoak eginiko iradokizunari jarraikiz".

Lurralde Kohesiorako Departamentuak Mankomunitatearen eskaera horri buruz eginiko txostenean esaten zen eskaera hori ezetsi egiten zela, zeren eta "Ez da, hertsiki, proposaturiko testurako ekarpen bat. Aztertu egin da Taxiei buruzko ekainaren 6ko 9/2005 Foru Legeko Xedapen Gehigarri bakarraren 6. apartatuan ezarritako lizentzia-eskualdatze araubidea. Aztertutakoaren arabera, ez da berdintasun-printzipioaren kontraketat jotzen. Beraz, justifikatutzat jotzen da bere horretan euts dakiola".

2024ko urriaren 25ean egindako Toki Araubideko foru batzordearen bilkuraren aktan agertzen da toki-entitateen ordezkariak eskatu zuela "aipatu eskualdaezintasuna eragozten duen xedapen gehigarria ezaba dadila. Halaber dago aktan jasota Toquero jaunaren abstentzioa, zeina bat baitator Romero jaunarekin xedapen horren balizko ilegaltasunari dagokionez, eta izapidetze parla-

mentarioan Parlamentuak eztabaidatuko duenari heltzen dio".

2. ZUZENKETA

EH BILDU NAFARROA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

Artikulu bakarrari apartatu berri bat gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

"Berria.- Xedapen gehigarriaren 6. apartatuaren bigarren paragrafoa kentzea.

Bigarren paragrafoa kentzen da xedapen gehigarri bakarraren 6. apartatutik".

Zioak: Aurreko zuzenketan adierazitako berak.

3. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

Gehiketa egiteko zuzenketa. Bigarren paragrafoa kentzen da xedapen gehigarri bakarraren 6. apartatutik.

Zioak: Nafarroako Arartekoaren Q19/787 eta Q23/873 gomendioak betetzea, zeinen bidez behin baino gehiagotan ondorioztatzen baitu beharrezkoa dela aipatu paragrafoa kentzea.

E saila:
INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

11-25/MOC-00074. Mozioa, zeinaren bidez Estatuko Gobernuia premiatzen baita BBVak Banco Sabadelli egindako EEPa (erosteko eskaintza publikoa) gauzatzea eragotz dezan

MIGUEL GARRIDO SOLA JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko maiatzaren 19an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Miguel Garrido Sola jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Estatuko Gobernuia premiatzen baita BBVak Banco Sabadelli egindako EEPa (erosteko eskaintza publikoa) gauzatzea eragotz dezan.

2. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

3. Ezartzea mozioa Ekonomia eta Ogasuneko Batzordean izapidetu dadin, eta xedatzea zuzenketak aurkezteko epea buka dadin eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2025eko maiatzaren 19an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Contigo Navarra-Zurekin Nafarroa talde parlamentarioko foru parlamentari Miguel Garrido Solak, Parlamentuko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako mozio hau aurkeztu du, Ekonomia eta Ogasun Batzordean hainbat lasterren eztabaidatzeko:

Zioen azalpena

Bada esamolde anglosaxoi bat, 2008ko krisiaren kausak aztertzen ditugun guztientzat, krisiari ezinbestean lotuta geratu zena: "Too big to fail", honela itzul genezakeena: "erortzeko handiegia". Esaldi hori behin eta berriro errepikatzen zen ekonomia-munduan Lehman Brothers erori zenean eta erorketa horrek nazioarteko banku-sistema kutsatu zuenean.

Esaldi hori bera erabili zen banketxeei diru publikoaren kopuru itzelak injektatzea justifikatzeko, gizarte-murrizketa ikaragarriak egiten ziren bitartean; izan ere, murrizketa haiek Mediterraneoko herrialdeetan ongizatearen sistema kolokan jarri zuten, gizarte- eta belaunaldi-ituna hautsi zuten eta hamarkada bat galtzea eragin zuten.

Krisia kudeatzeko hartutako neurri nagusietako bat izan zen banku-kontzentrazioko prozesu bat bultzatzea, entitate handienek zailtasun gehien zituztenen ardura har zezaten. Prozesu horretan, jakina, 100.000 milioi euro inguruko diru publikoa baliatu zen, entitate horiek saneatzeko, diru-kopuru hori diru-kutxa publikoetara itzuliko zela hitzemandana, nahiz eta ez zen halakorik inoiz gertatu.

Prozesu horren emaitza izan da Estatuko 5 banku handienek 2008an banku-aktiboen % 43 kontrolatzen zuten bitartean gaur egun % 70 inguru kontrolatzen dutela. Hau da, 2008ko krisiaren ondoren, zeinaren jatorria "erortzeko handiegia zen" entitate baten erorketa izan baitzen, banku-oligopolio bat eraiki dugu Espainian, 5 entitatearen artean banku-sistema osoa kontrolatzeko gai dena.

Ez da harritzekoa, aurrekari horiekin, jakin izana 2024an etekinen errekor historiko bat lortu zuela bankak -31.767 milioi euro-, hau da, 2023an baino % 20 gehiago, jada urte historiko bat izan baitzen. Horrek esan nahi du, adibidez, Estatu osoan etxebizitza-politiketara bideratutako guztizko gastua baino 10 aldiz gehiago dela.

Eta testuinguru hori guztia hartu behar dugu kontuan BBVak Sabadellen egindako EEPa aztertzerakoan. CNMVk berak kontzentrazio-espeditantean honako hauek identifikatu ditu bere txostenean:

- Partikularrentzako, enpresa txiki eta ertainentzako eta autonomoentzako merkataritza-baldin-

tzek okerrera egitea kokaleku jakin batzuetan: sortzen denak kokaleku jakin batzuetan izanen duen lehia-posizio nagusiaren ondorioz.

- Finantza-bazterketa: udalerrri jakin batzuetako bezeroentzat, batez ere landa-eremuetan eta aurrez aurreko zerbitzuen mende dauden biztanleria-kolektibo jakin batzuentzat.

- Enpresa txiki eta ertainentzako kreditua murriztea: eremu geografiko jakin batzuei eragiten die bereziki.

- Ordainketa-eragiketak eskuratzeko zerbitzuen emaileen merkatuarekin lotutako arriskuak, zehazki, zerbitzu horien bezeroei (enpresei) aplikatutako baldintzak okertzeko arriskua.

- Bezeroentzako kutxazainak baliatzeko baldintzek okerrera egitea, Banco Sabadellek Euro6000 Sarearekin eta Cardtronics-ekin gaur egun dituen akordioei dagokienez.

Txosten horren arabera, ordea, BBVAren konpromisoak nahikoak dira operazio hori onartzeko.

Argi dago berez oligopolioa den sistema batean banku-kontzentrazioa handitzeak soilik dakarrela erresilientzia galtzea desegonkortze sistemi-

ko eta espezifikoen aurrean, handitu egiten duela merkatuaren baldintzak maneiatzeko botere-kontzentrazioa, okertu egiten dituela bezeroentzako baldintzak, murriztu egiten dituela sektoreko bulegoak eta enplegua eta, azken batean, banku handi horien jabeek oraindik ere onura handiagorik lortzeko asmora baino ez dela bideratzen.

Hori guztia dela-eta, honako erabaki proposamen hau aurkezten dugu:

- Nafarroako Parlamentuak Estatuko Gobernuak premiatzen du BBVArk Banco Sabadelli egindako EEPa gauzatzea galaraz dezan.

- Nafarroako Parlamentuak Estatuko Gobernuak premiatzen du banku- eta finantza-sistema deszentralizatuago eta demokratikoago bat susta dezan, interes orokorrari erantzungo diona.

- Nafarroako Parlamentuak Estatuko Gobernuak premiatzen du banku- eta finantza-sistemaren funtzio soziala ziurtatzeko tresna publikoak gara ditzan.

Iruñean, 2025eko maiatzaren 9an

Foru parlamentaria: Miguel Garrido Sola

11-25/MOC-00075. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia- tzen baita Nafarroan kirol-lanbidean hasteari eta jarduteari buruzko apirilaren 4ko 18/2019 Foru Legea alda dezan Kultura, Kirol eta Turis- mo Departamentuaren bidez

IBAI CRESPO LUNA JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko maiatzaren 19an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ibai Crespo Luna jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiaitzen baita Nafarroan kirol-lanbidean hasteari eta jarduteari buruzko apirilaren 4ko 18/2019 Foru Legea alda dezan Kultura, Kirol eta Turismo Departamentuaren bidez.

2. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

3. Ezartzea mozioa Osoko Bilkuran izapidetu dadin, eta xedatzea zuzenketak aurkezteko epea buka dadin eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2025eko maiatzaren 19an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikitako Ibai Crespo Luna jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, Kultura, Kirol eta Turismo Departamentua premiaitzen duen honako mozio hau aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko.

Zioen azalpena

Nafarroan kirol-lanbidean hasteari eta jarduteari buruzko apirilaren 4ko 18/2019 Foru Legea aurrerapauso bat izan zen kirol-jarduera profesionala aitortzeko bidean. Legebiltzarrak aho batez

onetsi zuen lege hori, zeinak, besteak beste, kirol-jardueran intrusismoa saihestea baitu helburu, printzipio horrek indarrean jarraitzen du-eta kirol-politiken defentsan.

Hala ere, arauaren aplikazioa nahi ez diren ondorio batzuk eragiten ari da, eta talka egiten ari da estatuko eta nazioarteko kirol-erakundearen araudi aplikagarriaren eta Foru Komunitateko araudi propioaren artean.

Legearen helburua ez da teknikariak kirol-jardueratik kanpo uztea, baizik eta haien hezkuntza-, prestakuntza- eta lanbide-garapena aitortzea.

Horregatik guztiagatik, Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioak honako erabaki-proposamen hau aurkeztu du:

1. Kultura, Kirol eta Turismo Departamentua premiaitzen da Nafarroan kirol-lanbidean hasteari eta jarduteari buruzko apirilaren 4ko 18/2019 Foru Legearen aldaketa bat garatu dezan, Nafarroako kirolaren errealitatea aintzat hartuko duena, kirolarien osasuna eta kirolariek jasotzen duten zerbitzuaren kalitatea babesteko, sektore teknikoaren errekonozimenduaren aldeko apustua eginen duena eta kirolaren mantenimendua eta garapena bermatuko duena; bereziki, oinarrizko kirolarena.

2. Kultura, Kirol eta Turismo Departamentua premiaitzen da kirol-sare teknikoaren azterlan bat egin dezan, sektorearen errealitatea ezagutzeko eta kirol-sektoreko arlo bakoitzeko teknikarien beharrak ikusteko.

Iruñean, 2025eko maiatzaren 14an

Foru parlamentaria: Ibai Crespo Luna

11-25/MOC-00076. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia- tzen baita Nafarroan errenta bermatua ikuskatzeko plan bat lehenbai- lehen onets eta aurkez dezan

EMILIO JIMÉNEZ ROMÁN JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko maiatzaren 19an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Emilio Jiménez Román jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Nafarroan errenta bermatua ikuskatzeko plan bat lehenbailehen onets eta aurkez dezan.

2. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

3. Ezartzea mozioa Osoko Bilkuran izapidetu dadin, eta xedatzea zuzenketak aurkezteko epea buka dadin eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2025eko maiatzaren 19an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Talde Mistoko Emilio Jiménez Román foru parlamentariak, Voxeko kideak, mozio hau aurkeztu du Osoko Bilkuran eztabaidatu eta onartzeko:

Zioen azalpena

Azken hilabeteetan, Nafarroako errenta bermatuaren espedientei buruzko zenbait informazio, bai eta Nafarroako Gobernuaren jarduerak

eta funts publikoak fiskalizatzen dituzten erakunde eta entitateen txostenak ere, ezagutu ditugu.

Administrazio publikoak, zeina Gobernuaren mende baitago, esleipenen baldintzak eta helburua betetzen direla eta esleipenak kontrolatzen direla zaindu behar du bere funtzionamendu normalean.

Nafarroako Gobernuaren erantzukizuna eta betebeharra da esparru eta arlo guzti horiek kontrolatzea.

Nafarroako Parlamentuaren ardura da Gobernua kontrolatzea, eta aparteko ahalegina egin behar du baliabide ekonomiko eta funts publikoen eraginkortasuna kontrolatzeari dagokionez.

Horregatik guztiagatik, honako erabaki proposamen hau aurkezten dugu:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du:

Lehenbailehen onets eta aurkez dezan Parlamentuan Errenta Bermatua Nafarroan Ikuskatzeko Plana, ahal den zehatzena, atzeraeraginez eta zuzenbideak ezarritako epeei doitua. Helburua da eskatutako baldintzak betetzen ote diren aztertzea, egon daitezkeen akatsak detektatzea eta onuradunei kontu eskatzea.

Iruñean, 2025eko maiatzaren 15ean

Foru parlamentaria: Emilio Jiménez Román

11-25/MOC-00057. Erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita azterlan integral bat egin dezan Nafarroako genero-indarkeria ekonomikoari buruz, izaera instituzionalekoa barne, eta horri aurre egiteko garatu litezkeen tresnei buruz

LEHENDAKARITZA ETA BERDINTASUN BATZORDEAK ONETSI DU

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125. artikuluan ezarritakoa betez, agintzen da Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Nafarroako Parlamentuko Lehendakaritza eta Berdintasun Batzordeak 2025eko maiatzaren 13an onetsitako erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita azterlan integral bat egin dezan Nafarroako genero-indarkeria ekonomikoari buruz, izaera instituzionalekoa barne, eta horri aurre egiteko garatu litezkeen tresnei buruz. Hona testua:

“Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du:

– Azterlan integral bat egin dezan Nafarroako genero-indarkeria ekonomikoari buruz, izaera ins-

tituzionalekoa barne, eta horri aurre egiteko garatu litezkeen tresnei buruz.

– Genero-indarkeriaren arloko datuen eskuragarritasuna, homogeneousazioa, bilketa eta bateratzea sustatzearen arloko ahalegina areagotu dezan, bereziki indarkeria ekonomikoari dagokionez.

– Sakonago txerta dezan indarkeria ekonomikoaren errealitatea genero-indarkeriaren arloko prebentzio-, prestakuntza- eta sentsibilizazio-politiketan, bai eta arlo hori dela-eta egiten diren itun instituzionaletan ere”.

Iruñean, 2025eko maiatzaren 14an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

11-25/MOC-00060. Erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita adingabeen egoitza-harrerarako sistema indartzeko bide-orri bat zehaztu dezan 2025eko uztaila baino lehen, inplikaturata dauden eragile instituzionalen nahiz sistemako langileen kolektiboaren parte-hartzearekin

ESKUBIDE SOZIALETAKO, EKONOMIA SOZIALEKO ETA ENPLEGUKO BATZORDEAK ONETSI DU

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125. artikuluan ezarritakoa betez, agintzen da Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Nafarroako Parlamentuko Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko Batzordeak 2025eko maiatzaren 13an onetsitako erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita adingabeen egoitza-harrerarako sistema indartzeko bide-orri bat zehaztu dezan 2025eko uztaila baino lehen, inplikaturata dauden eragile instituzionalen nahiz sistemako langileen kolektiboaren parte-hartzearekin”.

tituzionalen nahiz sistemako langileen kolektiboaren parte-hartzearekin. Hona testua:

“Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du adingabeen egoitza-harrerarako sistema indartzeko bide-orri bat zehaztu dezan 2025eko uztaila baino lehen, inplikaturata dauden eragile instituzionalen nahiz sistemako langileen kolektiboaren parte-hartzearekin”.

Iruñean, 2025eko maiatzaren 13an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

11-25/MOC-00063. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia- tzen baita Nafarroako Unibertsitate Publikoko ikasketen prezioak doitu ditzan

UNIBERTSITATE, BERRIKUNTZA ETA ERALDAKETA DIGITALEKO BATZORDEAK EZETSI DU

Nafarroako Parlamentuko Unibertsitate, Berrikuntza eta Eraldaketa Digitaleko Batzordeak, 2025eko maiatzaren 13an egindako bilkuran, ezetsi egin du Cristina López Mañero andreak aurkeztutako mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Nafarroako Unibertsitate Publi-

ko ikasketen prezioak doitu ditzan. Mozioa 2025eko apirilaren 16ko 51. Nafarroako Parla-mentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko maiatzaren 13an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

11-25/MOC-00064. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia- tzen baita Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuan erizain espe- zialisten plazak ezartzeko plan estrategiko bat taxutu dezan

OSASUN BATZORDEAK EZETSI DU

Nafarroako Parlamentuko Osasun Batzordeak, 2025eko maiatzaren 16an egindako bilkuran, eze-
tsi egin du Leticia San Martín Rodríguez andreak
aurkeztutako mozioa, zeinaren bidez Nafarroako
Gobernua premiatzen baita Osasunbidea-Nafarro-
ako Osasun Zerbitzuan erizain espezialisten pla-

zak ezartzeko plan estrategiko bat taxutu dezan.
Mozioa 2025eko apirilaren 30eko 58. Nafarroako
Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko maiatzaren 16an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

11-23/ELC-00003. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Eskola Kontseilu edo Hezkuntzako Batzorde Nagusirako eta Tokiko Kontseiluetarako izendatu beharreko kidea hautatzea

HAUTAIGATZAK ALDARRIKATZEA

2025eko maiatzaren 19an eginiko bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Eskola Kontseilu edo Hezkuntzako Batzorde Nagusirako eta Tokiko Kontseiluetarako kide bat izendatzeko arauekin bat, zeinak 2025eko apirilaren 28ko Mahaiko erabakiaren bidez onetsi baitziren (58. NPAO, 2025-04-30ekoa), ERABAKITZEN DA:

1. Nafarroako Eskola Kontseilu edo Hezkuntzako Batzorde Nagusirako eta Tokiko Kontseiluetarako hautagai aldarrikatzea, Hezkuntza Batzordearen ordezkari gisa, foru parlamentari Kevin Lucero Domingues jauna, Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioak proposatuta.

2. Erabaki hau talde parlamentarioen eledunei jakinaraztea eta Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2025eko maiatzaren 19an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

J saila:
PONENTZIAK

11-24/PON-00001. Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 26.2 artikuluan jasotzen den Jokabide-kodea aztertzeke eta onesteko ponentzia

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko maiatzaren 19an eginiko bilkuran, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 26.2 artikuluan jasotzen den Jokabide-kodea aztertzeke eta onesteko ponentziak igorritako txostena ikusita, ERABAKITZEN DA:

1. Aipatu txostena Erregelamendu Batzordera igortzea, eztabaidatu eta bozkatu dadin.

2. Erabaki hau Erregelamendu Batzordearen lehendakariari jakinaraztea.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2025eko maiatzaren 19an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

TXOSTENA**AURREKARIAK**

1. 2024ko ekainaren 5ean, Nafarroako Parlamentuko Erregelamendu Batzordeak erabaki zuen ponentzia parlamentario bat eratzea Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 26.2 artikuluan jasotzen den Jokabide-kodea aztertzeke eta onesteko. Erabaki hori 2024ko ekainaren 11ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen (85. zk.).

2. Lan-taldea 2024ko ekainaren 27an eratu zen, eta ondoko kideak izan ditu, Legebiltzarreko talde parlamentarioek eta foru parlamentarien elkarteek izendatuta: Marta Álvarez Alonso (UPN talde parlamentarioa), Inmaculada Jurío Macaya (PSN TPa), Mikel Zabaleta Aramendia (EH Bildu Nafarroa TPa), Blanca Regúlez Álvarez (Geroa Bai TPa), María Isabel García Malo (PPN TPa), Daniel López Córdoba (Contigo Navarra-Zurekin Nafarroa TPa) eta María Teresa Nosti Izquierdo (Vox Nafarroa FPEa); eta Parlamentuko legelari

nagusi Silvia Doménech Alegrearen laguntza izan du.

Aipatu eratze-bilkuran, ponentziaburu gisa Unai Hualde Iglesias jauna hautatu zen, bera baita Erregelamendu Batzordearen lehendakaria, eta ponentziaren barne-funtzionamendurako arauak onetsi ziren, zeinak 2024ko uztailaren 5eko 93. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu baitziren.

3. Bost bilera egin ondoren, ponentziak honako txosten hau eta bere eranskina onetsi ditu 2025eko maiatzaren 13an. Eranskinean Jokabide-kode baterako proposamena jasotzen da.

4. Azkenik, eta Legebiltzarreko Erregelamenduko 64. artikuluan ezarritakoari jarraikiz, ponentziak erabaki du Parlamentuko Mahaiari jakinaraztea bere lana amaitu duela, Mahaiak hura argitaratzea agindu dezan eta, gero, Erregelamendu Batzordea deitu dezan txostena eztabaidatzeko eta bozkatzeko.

ERANSKINA**NAFARROAKO PARLAMENTUKO****JOKABIDE-KODEA**

“**1. artikulua.** Xedea, izaera juridikoa eta aplikazio-eremua.

1. Jokabide-kodeak xede du foru parlamentarien betebeharrak arautzea, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 26.2. artikulua garapenez, haien jardunaren zintzotasun- eta gardentasun-eskakizunak areagotzeko eta nafar herritarrek Foru Komunitateko ordezkari-erakunde gorenean duten konfiantza indartzeko.

2. Jokabide-kode hau Nafarroako Parlamentuaren barne-arau bat da, bere Erregelamendua garapenezkoa, eta zuzenean aplikatzekoa eta loteslea da foru parlamentari guztientzat beren eginkizunetan ari direla, beren agintaldiaren denbora osoan.

2. artikulua. Jokabideari buruzko printzipio orokorrak.

1. Foru parlamentariak beren karguak berezkoak dituen eskubideak baliatu eta betebeharrak bete behar dituzte, interes publikoarekin bat. Haien jardunak Nafarroako herritarren interes orokorra izan behar du xede, eta ez da egonen norberarentzat edo hirugarrenentzat edonolako ordaina edo onura bilatzeko xedeak baldintzatuta. Saihestu behar dute interes-gatazka orotan sartzea, eta ezin izanen dute beren foru parlamentari izaera aipatu edo baliatu merkataritza-, industria- edo lanbide-jardueretan aritzeko.

2. Printzipio hauei jarraikiz bete behar dute beren kargua foru parlamentariak: zintzotasuna, onestasuna, gardentasuna, arreta, austeritatea, kontu-ematea, jardun desinteresatua, erantzukizuna eta herritarrekiko eta erakunde parlamentarioarekiko errespetua. Halaber, eredugarritasun-printzipioak gidatuko du haien jarduna, hala baitagokio Nafarroako herritarrek haiengan jarritako konfiantza publikoari.

3. Foru parlamentariak zainduko dute emakumezkoen eta gizonezkoen arteko errespetua sustatzen dela, eta hori zailtzen duten oztopoak kenduko dituzte. Halaber, Nafarroako Foru Komunitateko hizkuntza bereki guztien erabilerarekiko errespetua agertuko dute.

4. Foru parlamentariak, Jokabide-kode honetan xedatutakoaren arabera, ezin dute onura ekonomikorik edota mesederik onartu, eskatu edo jaso izapide parlamentarioetan eragin edo alde jakin baterako botoa ematearen truke. Beren eginkizunetan, uko egin behar diote opariak edo ezein mesede edo zerbitzu jasotzeari, kortesia hutsezko opariak edota Parlamentua ordezkatzeko dutenean ematen zaizkienak izan ezik. Azken horiek Parla-mentuari eman beharko dizkiote.

3. artikulua. Ordena, adeitasun eta diziplina parlamentarioko arauak errespetatzea.

1. Foru parlamentariak behartuta daude ordena, adeitasun eta diziplina parlamentarioa errespetatzera, eta jarduketa nahiz ebazpen guztien gaineko sekretua gordetzera, baldin eta horien sekretutasuna espresuki ezarrita badago Parlamentuko Erregelamenduan ezarritakoaren arabera.

2. Beren eginkizunak gauzatzean, errespetu osoa erakutsiko dute uneoro gainerako parlamentariarekiko, Parla-mentuaren zerbitzupeko langileekiko, haiekin harremana duten erakunde, agintari eta enplegatu publikoekiko, komunikabideekiko eta haiekin harremana duten herritarrekiko.

3. Beren mintzaldietan, parlamentariak ez dute erabiliko adierazpenik gorrotoa zabaltzen, akuilatzten, sustatzen edo justifikatzen duenik herritarren aurka, oro har, edo pertsona jakinen aurka, jaiotza, arraza, sexu, erlijio, iritzi edo beste edozein baldintza edo egoera pertsonal edo sozial dela-eta.

4. artikulua. Interes-gatazkak.

1. Foru parlamentariak uko egin beharko diote interes pertsonala edo partikularra dagoen prozedura orotan parte hartzeari.

2. Interes-gatazka izanen da Nafarroako Parla-mentuko kide batek interes pertsonala, zuzena eta berekia, edo zeharkakoa, beste pertsona bereizi baten bidezkoa, badu, baldin eta interes horren eraginez era desegokian betetzen baditu bere betebeharrak, halako moduz non zalantzan jarri ahal den bere objektibotasuna edo independen-zia, edota berekin badakar parlamentariak ez iza-tea xede interes orokorra lortzea. Ez da interes-gatazkarik izanen onuraren bat lortzen denean soilik herritar-taldeko edota pertsona-talde zabal bateko kide izateagatik.

3. Foru parlamentariak beharrezkoak diren neurri guztiak hartuko dituzte interes-gatazkarik izan ez dadin. Gatazka ezin bada ebatzi, parlamentariak Parlamentuko Mahaiari jakinaraziko dio lehenbailehen, betiere kasuko bilkuraren deialdia jaso eta hurrengo hogeita lau orduetan gehienez ere. Mahaiak bidezkoa dena ebatziko du, gaiari buruzko txosten juridikoaren ondoren.

5. artikulua. Jardueren eta ondare-ondasunen aitortpena eta interesen erregistroa.

1. Foru parlamentariak hautetsiek, parlamentari-izaera osoki eskuratzeko, jardueren aitortpena eta ondare-ondasunen aitortpena bete beharko dituzte nahitaez, bakoitza bere aldetik eta Mahaiak onetsitako ereduaren arabera. Parla-mentuko Idazkari-tza Nagusian beren izaera frogatzen duten une berean beteko dituzte, Nafarroako Parla-mentuko Erregelamenduaren 1. artikuluan xedatutakoari jarraikiz.

2. Jardueren aitortpenak bilduko ditu aitortzaileek gauzatzen duten edozein lanbide-, lan- edo enpresa-jarduera –baldin eta, legeria indardu-narekin bat, bateraezintasun-zioa izan badaiteke– eta, orokorrean, diru-sarrerak ekartzen dituzten edo ekar ditzaketen jarduerak.

3. Ondare-ondasunen aitortpenak bilduko du aitortzailearen edozein motatako ondasun higigarri eta higiezin, eta zehatz-mehatz adieraziko ditu edozein sozietatetan duen partaidetzaren arabi-

dea eta norainokoa eta dauzkan gordailu nahiz ordezkatzeko-baloreak.

4. Artikulu honen 2. eta 3. apartatuetan aurreikusitako aitopenak Parlamentuko Mahaiak onetsitako ereduaren arabera egingen dira. Eredu horiek kode honen eranskinean ageri dira.

5. Aitorpen horiek Interesen Erregistroan jasoko dira. Erregistro hori Legebiltzarrean eratuko da, lehendakaria zuzenean buru duela eta legelari nagusiak zaindurik. Erregistroa publikoa izanen da. Jardueri eta ondasunei buruzko informazioa publikoa da, eta Nafarroako Parlamentuaren webgunean argitaratu behar da bi hilabeteko epean, Legebiltzarreko Mahaiak ezarritako moduan eta baldintzetan. Edonola ere, ondasunen aitopenari buruzko informazioa argitaratzerakoan ez dira emanen kokapen datuak, ez eta titularren edo hirugarrenen pribatasuna eta segurtasuna arriskuan jar dezaketenak ere.

6. Halaber, urte natural bakoitzeko lehen sei hilabetekoan, foru parlamentarietako jardueren eta ondasunen aitopen berriak egin beharko dituzte. Aitortutako datuetan aldaketarik egon ez bada, aurreko aitopenak berresten dituen aitopen soila aurkez daiteke aitopen horren orde. Orobat, foru parlamentari izaera galdu eta bi hilabeteko epean ere aurkeztu beharko dituzte aitopen horiek foru parlamentarietako.

7. Foru parlamentarietako ikerketa-batzordeen esku utzi beharko dituzte pertsona fisikoaren errentaren gaineko zergarako eta ondarearen gaineko zergarako egin dituzten aitopenen kopia kautoak, baldin eta ikerketa-batzordeek aitopen horiek behar badituzte.

8. Legebiltzarreko-izaera galdu eta bi urte igarotzen direnean, aitopen-agiriak suntsitu egin beharko dira.

6. artikulua. Bateriaezintasun-araubidea.

1. Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 15. artikuluan aipatzen den foru-legeak bateraezintasunei buruz ezartzen dituen arauak bete behar dituzte foru parlamentarietako. Mahaiak Osoko Bilkurara eramanez dituen foru parlamentari bakoitzaren bateragarritasun- edo bateraezintasun-egoerari buruzko kasuan kasuko proposamenak, foru parlamentariari entzun ondoren.

2. Bateriaezintasuna aldarrikatu eta interesdunari jakinarazi ondotik, foru parlamentarietako sei egun balioduneko epea izanen du, gehienez ere, Legebiltzarreko eserlekuaren eta horrekin bateraezintasuna den karguaren artean aukeratzeko. Zein aukeratu duen Mahaiari jakinarazten ez badio,

ulertuko da foru parlamentarietako uko egin diola Nafarroako Parlamentuko eserlekuari.

7. artikulua. Gardentasuna eta datu biografikoak.

1. Foru parlamentarietako gardentasun printzipioari jarraikiz jardunen dute, eta kargua betetzeari buruzko informazio- eta publizitate-betebeharrak beteko dituzte, Kode honetan zehaztutakoaren arabera.

2. Legebiltzarrearen webgunean iruzkin txiki bat argitaratuko da foru parlamentari bakoitzaren datu biografiko pertsonal, akademiko eta profesionalen, eta bertan kontsultatu ahalko dira legebiltzarreko garrantzitsuak diren titulu, datu eta artxibo guztiak.

8. artikulua. Etengabeko prestakuntza etikaren eta jardunbide egokien arloetan.

1. Jokabide-kode hau betetze aldera, Nafarroako Parlamentuak, legegintzaldi bakoitzeko lehen urtean, informazio- eta prestakuntza-plan bat ezarriko du legebiltzarreko, etikari, jardunbide egokiei, gobernu onari eta, oro har, kode honetan jasotako gaiei buruzkoa.

2. Halaber, foru parlamentarietako kargua hartzen duten unean gida bana jasoko dute beren betebeharrak eta bateraezintasunekin, bai eta jokabide-kode honen ale bat ere. Parlamentarietako dokumentuok irakurri eta ulertu dituztela adierazi beharko dute.

3. Nafarroako Gobernuak edota espezialistak dituzten bestelako erakundeek arrazakeriari eta Espainiako Konstituzioaren 14. artikuluko arrazoiengatikoko bazterkeriari buruzko prestakuntza edo sentsibilizazio-ekintzak eman ahalko dizkiete Parlamentuko kideei.

9. artikulua. Jokabide-kodea betetzeko bermeak eta urteko jarraipen-txostena.

1. Parlamentuko Mahaiak bermatu beharko du foru parlamentarietako jokabide-kode hau betetzen dutela, eta, betetzen ez den kasuetan, beharrezkoak diren neurriak hartuko ditu.

2. Parlamentuko Mahaiak txosten bat onetsiko du urtero Jokabide-kodearen aplikazioa dela-eta eginiko jarduketekin. Txosten hori argitara emanen da erakundearen webguneko Gardentasuna atalean.

10. artikulua. Arau-hausteak eta zehapenak.

1. Jokabide-kode honen urraketak Parlamentuaren Erregelamenduan berariaz ezarritakoaren arabera zigortuko dira.

2. Jokabide-kode honetan aurreikusitako betebeharrak ez betetzetik eratorritako arau-hausteak

oso larri, larri eta arin gisa sailkatu ahalko dira Parlamentuko Erregelamenduaren 129. artikulutik 131.era bitarte xedatutakoari jarraikiz, eta 132. artikuluan aurreikusitako zehapenak ezarriko dira.

3. Zehapen-prozedurak Erregelamenduaren 134. artikulutik 137.era bitarte xedaturikoari jarraituko dio.

4. Zehapen-araubidea aplikatuko da ezertan galarazi gabe foru parlamentariak ez-betetze egoera konpondu edo desagerrarazteko neurriak berehala hartzeko duen betebeharra.

11. artikulua. Zalantzak argitzeko eta galderak egiteko bidea.

Zalantzak argitzeko eta galderak egiteko bide bat ezartzen da, foru parlamentariak eta talde parlamentario eta foru parlamentarien elkarteek jokatutako kode honen aplikazio eta interpretazioari buruzko galderak egin ahal izateko Parlamentuko Mahaiari.

Xedapen gehigarri bakarra. Txostenak argitaratzea.

Nafarroako Parlamentuaren Gardentasuna atalean, jokabide-kode honen aplikazioarekin lotutako txosten guztiak argitaratzeko berariazko atal bat sortuko da”.

